

**PACHICO
CHERREN.**



VERGARA:

—
Imp. y encuadernación de J. Lopez.

1890

卷之三

CHERRYBEN

H- 39684
K- 43504

ATJ
21527

Apuolage

PACHICO CHERREN.



VERGARAN:
Juan Lopez-en moldizteguiyan
1890 garren urtean.

ИЗДАЕНО СОГЛАСИЯ

ЧЕРНЯХОВСКИЙ



Ι

Orain izango dira—Jaungoicoac daqui cembait urte—Anzuela eta Descarga barrena bitartean, bideaz ezquerrera, zan ausera bat, icusi leiquean ederrena.

Pago, aritz, gaztaña, sagar eta queisa artean, or da emen banacatuac agirri ciraden pachara ederreco eta Aitzgorri gañeco elurra baño zuriago ciraden echeac.

Anbarrenean erreca chiqui bat—eeñen urac ziran—udaberrico intzan tantoa baño garbia-goac eta isotza bera baño otzagoac—an chinchica cijoan—bere anaya,—Arrandari menditican datorren erreccachoari laztan ematera, agur, gur, gur, gur esanas, erreca bastarretako sagatz, altz eta arantzei.

Errecacho onen escubico aldetik eta inchaur audi batzuen itzalean; beste lau edo bost eche inguruau cituala, cegoan eleiza chiqui bat, non erregututzen cioten Aita San Blasi, len aitortu dedan ausocoac.

Ausera onetacoa zan, Eche-alai ceritzon echea, non guertatu zan ni esatera noan condaira.

Icena zuan becela, Eche-alai zan era guztitaco eta cituen soro batzuec, bai eche buruan

eta bai eche azpian, lur beltz eta asta putza ondo eldu baño samutragoac eta aundi qui batzen baratza becin ongui apainduac.

Itz batean, eciñ escatu cezaquean Eche-alai ceducan baño egoera oberican. Atari aurreco queisa, inchaur eta lizarren artetic, neques bide eguiñic, mun eguiten cion eguzquiac egun sentian eta etzion alderatzen Azaldeguietan barrena escutatu artean.

Baguilla cegoan bere azquenetan eta zan illunabar bat.

Eche-alaico gentea ari zan queisa batzuec biltzen eche aurreco queisa arboletan.

Contu erori Ignacio;—cergatic gueyago balio dec ic mundu onetaco queisa guztiac baño: deitzen cion amona batec birigarro bat becela adarric adar queisa gañean cebillen amasei urteco mutill gazte bati.

Ez bildurric izan ama, cergatic badaquit nun eta nola nabillen—erantzun cion gazteac,

Auqueracua intzaque, seme, erriric, erri chapolari bicimodua ateratzeco.

Au esanaz ustuz cituan altzuan cituan queisac queissondoan cegoan ocharren batera.

Bai....jachiadi onezquero; ocharren onec gañezca eguin dic eta Aitac eta Pachicoc ere bete ditec eurena.

Ignacio brinco batean jechi zan queisatic.

Beste mutill gazte bat lau edo bost urte Ignacio baño zarragua geisten zan orduan al-

dameneco beste queisa arbola batetic; ceñen ondoan cegoan Aitona buru zuri bat.

Bien artean artu zuten aldebanatatica n queisaz beteric ceucaten ocharrena eta abiatu ciran Ama eta Ignacio ceuden aldera.

Elcartu ciranean eseri ciran atsedeten lurrean.

Aitonac atera zuan praque taca boltsicotie bere tosa, atera zuan andi pipa querteren mots bat, eta atzasclean astinduaz—nola ortzic ez zuan, jarri zuan cintzilica ezpañean.

Beste aimbeste eguin zuan seme zarrenac.

—Pachico, eman eguiac pipada bat,—emen etzioc eta—esan cion Aitonac biatzaquiñ atzamartuaz, baña alferric, tosaren ondoa.

Aita—neroni ere aitu zait, erantzun cion semeac bere pipa bete zuanean.

—Guezurtia,—esan cion Ignacioc icioturic.

—Atzo bertan ez niean ecarri neronec laurdemba Vergaratic?

—¡Y beti icengoaiz berritsu aundi bat!

—¡Eta i citala paregabecoa!

—Ondo eguiten diat. Erre naiduenac erosidezala belarra.

—¡Ezaiz lotsatzen esatiaquin bacarric?

—Utziyoc; utziyoc Ignacio—esan zuan Aitac arnasa luce bat eguiñaz eta pipa sartuaz bere tosan—utziyoc. Bacequiyagu cer ichon dezagueun guztiyac ire anayagandic.

Juane—esan zuan amac—Oriseda eche one-

taco Judas--Orrechec quendu beardigu danori biciya.

—Orrechec.....

Isilldu zaite Fraisca--erantzun cion Juanec --Pipa artzalle zalea banaiz ere echecho baquian zaliago naiz.

--Aita--baqueric ezbadezu ere pipa bete belar izango dezü--dio Ignacioc,—ni bici naicen artean; eta esanaz batera brinco bian sartuzan echean.

Jesusgarren batean biurtu zan atzera arturic escuan orri pusca bat socan guisa biurtua.

Tori Aita esan cion--naiz neronec ez erre, ezagutzen det cemba ayenatzen ceran orreric ez dezunean pipa betetzco, eta argatic, atzo nere añayaren aguinduaz juan nintzanean bellarra ecartzera, erosi nuen laurdencho bat zuri ez aldiac betetzeko.

--Bai--esan zuan Pachicoc--nere laurdenetic artuco uan ori.

--Beguiraic Pachi--Ezeidac odolic berotu.

¿Usteduc danac guerala ire antzecuac?

--Bai, esan zuan Fraiscac Pachiri beguiratuaz--Aiñ citalac dituc ire amesac nola díran ire eguiñac.

--Bat...bai...utzi utzizayozue gauza orri --esan zuan Juane guizajoac masallac estuturic tira eguiñaz pipari.

Zori oneco paquea iritsi zan Eche-alayra... Illun arratsa zan eta egunaz bero izugarria eguiñ bazuan ere, chit egon guiro ona cegoan.

Aurqui apaldu eta lotara juan bear degu
--esan zuan Juanec.

Bigar goician goiz, eguzquiac berotzen asi
baño lenago, juan bearco dezute Vergarara
queisequin, eta ala oraiñ, goacen echera--Mi-
caelac onezquiero guertatuko zuan afariya.

Beguiria Juane.. ¿Ez litzaque obe bertan
afaltzea? esan cion emazteac.

Ongui pensatuba da....--erantzun zuten da-
nac--eche barruan labean baño beroago egon-
go da oraiñ.

--;Micaela.....deadar eguin zuan Fraiscac
Echealdera beguiratuaz.

--¿Cer naidu Ama?--erantzun cion nescacha
batec zucaldeco leyotican.

--Afariya guertu danean ecarrizan onerase.

--Or naiz bereala Ama....

Eta esan becela--or non datorren gure Mi-
caela galbai bat zapi zuri batequiñ estaliya
buruan arturic, eta gaztaña coloreco pichar
anndi bat sagardoz beteta escuan duela.

--Micaela zan emezortzitic oguei urteraco
nescacha bat--San Juan eguneco goiz bat be-
ciñ arguiya eta larrosa bat beciñ ederra.

Itzuli zuan auspez galbaya; apaindu zuan
zapi zuriarequin; eta jarri zuan gañean ontzi
zabal bat bete sardiña, liña lorea bañon urdi-
ñagoac eta ingurutuaurre zarra baño oriagoco
arto atalaquin.

....Aitaren, Semearen, eta Spiritu San-
tuaren....Errezatu zutenean paternosterra,

bedeincatu zuan mai ura Juanec,...eta betor sardiña, colpe artuari eta laztan picharrari asi ciran jaten paque onean.

—Queisac..baduaz arintzen—esan zuan Juanec,—eta sentitzen det Don José gatican.

—D. Jose..—dio Pachic—Gueyago sentituco dute choriac.

—Aurten ez da onezquero gueyago etorrico; meza esan baño len, goician goiz, zozuac eta esquillasuac illtzeroa gure sucaldeko leyotic
—Deabruan pistiyac—ez dira izutzen chorimalua jarria-gatican.

—Eta Don José aitatū degun ezquiero..gaur
¿Nola ez oteda etorri? esan zuen Fraiscac.

—Atzo juan bazan Donostiara...bere illoba Indianoari bidera ateratzera,—esan cion Juanec.—¿Orla badator illoba? ¡Ay cemba! pozten naicen! ¿Ecarrieo ote digu zure anayan berriric Juane....

—Jaungoicoac nai izandedilla.

—Arritzeco gauza da guero, aimbeste demboran ez jaquitea ez illdan, ez bici dan—Bildur naiz illco zala, bestela onezquero letra puntembat eguingo zuan.

—Neronec ere alace ustedet Juane.

—Bost ajola digu ori ala izanda ere, esan zuan Pachicoc.

—¡Ave Maria purisima! diyo Fraiscac;

—¡Ay cer biotz gogorraren jabe aicen seme!

—¿Cer ardura digu guri ura deabruac era man dezala secula ardibat eman ezbadi?

--Nic nai dedana eta danoc deseо bearde-guna da, bici dedilla—esan zuan Juanec--naiz Ipiñ-arrita bete urren jabe izan eta ez deigula errechin batentzat ere eman.

--Baña....¿Americatic dator Don Josen illo-ba? Galdetu zuen Micaelac.

—Ez cequiñat nic ori, erantzun cion amac, baña nola ta nai ere urrutitic beñepenean, eta esaten, dutenez oso aberats.

—¡¡Isso...!! esan zuan Ignacioc, lepoa luza-tuta. ¿Ez otedira erac an Descargan barrena datocenac?

II.

Arrazoya zuan Ignacioc; gastañaria ciar ci-johan galtsadan, azaldu ciran Apaiz Jauna eta bere illoba Angel, mando banan gañean, on-doren cituztela beste iru mando Indianoaren maletaz zamatuac.

D. Jose zan San Blaseco apaiz Jauna. Ci-tuan irurogueirembat urte, osasun colorea eta gueyegui ez arren cer arin mardua; bere itz-etan eta bere arpeguian ezagun zan biotzaren edertasuna; beti ichiya gorrotoarentzat, pol-tsa zabalic ceucan becela auzoen ez bearretara-co; itz batean zan esan oidan becela, ogui pus-

ca baño obea, eta aú cera guztiac, maitatzen
zuan aita becela.

Indianoa zan ogueita bost urteco galai gaza-
te bat.

Eche-alaico guraso eta umeac jaiqui ciran
ayei ongi etorri ona ematera: bacarric Pachi
guelditu zan ocharren ondoan, sardiñac egon
ciran ontzia arta pusca batequin inguru guz-
tian igosten; eta esanaz bere artean gcer ceu-
cat nic cer icusi indianoarequin eta ez bere
osabareqnin... Oyec emango dutenagatican.

Ez alcituan D. José Echealaitarrac icusi,
guelditu zuan mandoa.-- Beste aimbeste egun
zuan Indianoac.

--¡Caisso Juane! ¡Ola Francisca esan zu-
ten osaba illobac.

--Arratsaldeon duela D. José lagunaquin,
erantzun zuten danac.

--¿Possible ote da--esan zuan Franciscac--
Zaldun au dala.....

--Angel--erantzun cion irribarre eguiñaz
Indianoac, ni naiz mutill gaizto ura oraiñ
amar urte asarratu eraguiten nizuna beti arri-
ca eche aurreco inchaurrari nere osaban on-
dorean Eche-alaira etorten nintzanean.

--¡Bedeincatua izan dedilla gure Jaungoi-
coa!! Norc esan lezaquean berorizan beciñ.....

--Cer berori eta cer perrechicu ustel:
Orise bear guenduque; sapaburua aña ez
nintzanean ezagutu ninduenac berori eta jau-
na esatea.

--¡¡Infarnuco Chomin!! Micaelac ere ez du ecer galdu:--Au bai dagoala nescacha.

—Micaelac jachi cituan beguiac lepoco pañoloan punta atzamartuaz, eta aren larrosa coloreco masalla ederrac biurtu ciran crabe-liña colorecoac.

--¡¡Cembat aci dan Ignacio!! ¿Eta Pachi nundican dabill?

—Queisa ondoan guelditu da.

Arec, ezdago cer esanic, lengo lepotican euquico du orañ ere burua. ¡Amaica! bidar ernegatu eraguin ciran chiquitan.

—Eta beori, ¿Nola ibilli da mundu oyetan?

--Zorionecoberoi, ez nuque nai berriz aitze-ric Juane.

—Baña écin utzi esan gabe.

¡Ba! bearco utzi nerequin aisquide nai ba-dezu.....

—Ni ibilli naiz—ondo eta gaizqui, guztira; baña Jaungoicoari esquerrac osasuna badet eta asco asco ez arren, ondasun pisca baten jabe ere eguiñ naiz; nere ustez naicoa, ogui pusca bat janaz baztar onetan pocic bici iza-teco. Asco nai diot esquiña oni, eta gueyago nere osabari, ceñi zor diotan naicen guztia.

—Nere artean esan nuan...nuan.. nere ollo lurrera, onezquero osaba zartua egongoda, eta nai det bere ondoan bici bera zaitutzeco eta biurtu, iñola albadet, neri eguin dirac mesedeac:...eta esan da eguin,-emen nun irichi naicen cerutic eroritaco cho onetara;—baña...

oraiñ gogoratzen naicenaz--zuec...inguru guztico aberatsenac izan bear dezute....

—Jaungoicori esquerrac ezaigu falta artoa eta esnea.

—¿Cer esaten dezu Juane? ¿Eta anayan ondasunac?

—¿Cer ondazun Don Angel?

—Berriz ere—D. eta calabaza erria—Juanc ceruan euqui dedilla--zure anayanac.

¡¡Ay gure Jaungoicoa!!..¡¡Orla iltzan!!! --esan zuten Juanec eta Fraiscac escuac gutzatuaz.—Seguru eciñ esan nezaque, esan zuan indianoac cerbait damuturic,—baña..oso gaizqui cegoan.

¡¡Ay!! Ez beza ucatu..illa izango da.

—Bai ba zorigaiztoan....urte bi izango dira ura il zala, esan zuan indianoac:

—Baña..¿Nola izan lezaque zuec ez jaquitea? ¿Eta arec zuentzat utzi cituan isugarrizco ondasunac?

—Gorde diteztela orain dauzcatenac, erantzun zuten Juanec eta Fraiscac.

—¡Juane!....¡Fraiscal!....esan cien apaizac, escuaquin sorbaldan juaz...Negarra ez da aiñ micatza ondasunequin danean.

Bigar itz eguingo degu gauza orren gañean, cergatic gaur ezaudete orretaraco.

—Gaba irichi zan izarrac aguertuaz...India-noa eta bere osaba alde batera eta Eche-alai-coacbestera--alcarri gabon esanaz abiatu ciran bacoitza bere echera.

—¡Ill da!...jill da! —esan cioten Pachiri aitac eta amac echera eldu ciranean.

—Eta...¿Diru asco utzi du? Eta., Guretzatutzi ditu?—galdetu zuan Pachic beguiac, ris, bris eguiten ciotela.

—¡Pachico!—esan cion aitac asarraturic.

—Oso biotz charra dezu eta lotsatzen naiz, zuri semearen icena eman bearrac.

—Andic laster sartu ciran bacoitza bere apsentuan.

—Queisac astu ciran....an jancituzten goicean olloac eta cerriac—....Astu zan goicean Vergara joatea.

Eche-alaico danac, osabaren eriotza ceucaten gogoan; Pachic, cerbait izango zuan esperanza-requin;—gañeracoac negar eguiteco.

Biaramon egun sentivan cijoan Don José Eche-alai aldera.

Beste batzuetan eraman oizuan becela, ez ceraman orduan bere escopeta eta laguntzen cion bere illoba Angelec.

Eldu ciradenean Eche-alaira, arquitu cituen Juane eta gañeracoac, aurreco arratsian utzi cituen baño cerbait sosegu gueyagorequin.

Ya..ba Juane,—asi zan esaten indianoa,—emen..argui itz eguin bear degu.

—Nola difuntuac utzi ciñuen bere ondasunen jabe; conveni da, eta bear dituzu ceureganatu,—besteric ez bada ere limosna eguiteco.

—Arrazoya du, Don Angel,...ala gustatzen zait guizonac.

—Orañ esango dizuet cer guertatzen dan gauza onetan.

—Zure anaya zan bost egun milla errialen jabe! —Bost egun milla errial! —esan zuan Pachic —! Eta secula champon bat bacarra ez, ciguen bialdu!!! —Zure anaya zan, oso diru maitea... Baña.... Utzi ditzagun paquean ildacoac, eta egun dayogun guerra zuen ondasunac jaten biciric daudenari.

—Zure anayaren azqueneco encargua artu zutenac zabaldu dute American, egun dutela difuntuan borondatea; Jaungoicoac aguintzen duan becela; eta an, ihorez ez du sinisten guezurretan dabiltzanic.

Onela ba bear diozute escribitu aimbat lasterren escatutzen arrazoi dan becela, zuen gauzac eta euren buruac gorrac eguiten badituzte, billatuco degu ərremedyua gorraicea sendatzeko.

—Orgui da Don Angel,—esan zuan Juanec, —Guc eguingo degu beorrec esaten duan guztia.

Nola Eche-alain ez cegoan cerequin carta egun, apaizac bialdu zuan Pachi esanaz..esan eguioc gure Josepari emateko papera, tinta, luma eta oblia batzuec.

Pachi guztiz naguia zan, baña nola ceguan ezcurran zurru murrua, berantzan ere cerbait izango zan amesean, lau brincoan eldu zan Don Josen echera.

Andra Josepa zan emacume bat, ez zarra eta ez gaztea, guztiz ona eta chit escu zabala.

Pachic billatu zuan andra Josepa secula baño umore obean, eta contuac esateko gogo andiaquin.

—Andra Josepa,—esan cion Pachic,—eman bear dit aimbat lasterren escatutako oyec.

—Jesús guizon.... Ez ari aiñ burduntzia izan,

ichonzac pusca bat, ez ceramac urjolac garirican.

—Baña! Ez daqui nequez juaten banaiz asarre
eguingo diatena apaizac eta Don Angele!

—¡Cer egun biar ditec asarre, ainguerauc
baño obeago diran cristaubac!

Oguei urte badituc Don Josequin nagoala, eta
oraindican ecoiat icusi arpegui illunican. ¿Eta
Angel? ¡Apota! ¡lurrac ez dic bere gañean ume
obcagoric! ¡Icusi dec cer mutill ederra etorri
dan?—Eta esan beza andra Josepa—¿Aberatza
etorri alda?—¡¡Izugarri!! Baequi arc ecarri ditua
nac...ator beran aposentura, eta an icusico duc
cer dan gauza ona.

Pachi eta andra Josepa sartu ciran cuchatillaz
eta narruzco maletas beteric cegoan aposentu
batzen.

Andra Josepac eregui cituan ayetaco iru edo
lau eta eracutsi ciozcan Pachiri ayen barruan
ceudenurrezco eta cillarrezco gauza ederrac.

Begujac igues egun nai cioten. Pachiri ayec
icusi cituanian...andra Josepa ecin cabitu zan
bere larruan Pachi ala icusita.

Au..—esan cion Pachiri, biatzaquin señalatuaz
iltze oriz josita cegoan cuchatilla bat,—au..cioc
ichita zazpi guiltzarequin;—artu zac escuetan,
—esan cion—begui bat quiñatuaz.

Pachic egotzi cion escua eta osta osta jaso
zuan lurrctic ontzabeten bat. Atzera uzteracoan
aitu zan chin..chin ots bat Pachicori zarrada
eraguin ciona. Andra Josepac—algara eguiñaz
esan cion.

—¿Cer uste uan guisajorrec—¿arta lastoz be-
tea cegoala?

Pachic ez zuan aditzen andra Josepac esaten

cionic. Ez cegoan bere artean, izardi larria ate-ratzen citzayon eta milla gogoraciochar jayotzen ciran aren buruan.

—Cer deizquioc orri Pachi?

—Duros betia egon goda geh? ¡Ah..caicu aunda! duros ez, baicic lau cantoico ontzaco zarrez ceoc ori betea.

Au aditu zuanian Pachic, galdu zuan bere burua eta choco danetara beguiratuaz eman zuan pauso bat ucabillac estuturic andra Josepa ce-guan aldera.....

—¡Pachi! ¡Pachi! ots eguin zuten sasoi onetan escalleratatic.

Pachic, birau izugarri bat boteaz, jo zuan os-ticuaz lurra eta andra Joseparen ondoren joan zan escallera burura.

—An cegoan Ignacio....

—Egun on daucala andra Josepa—esan cion.

—Abill azcar mutill, esan cion Pachiri.

Ordubete onetan an ceudec ire zai apaiza eta
Don Angel.

—¿Ez aldaquic oraindican meza esateco da-goala Don José?

—Ichon dezala...Oraindic əzta berandu,—esan zuan Josepac,—Jesús batean jarrico dizutet gosari goso bat.

—Esquerrac milla andra Josepa,—esan zuan Ignacioc.

—Cer esquer eta cer adar....Nic esaten det gaur ez ceratela juango Eche-alaira luicaica mutur bana jan eta chacolin zurrut bana eran gabe.

Alcarrequin busti bear degu gure indianoaren etorrera.

— Beste egun baten etorrico guera,—andra Josepa, esan zuan Ignacioc.

Igandean meza ondoan artuco degu berorren gonbita.

Ondo da ba, nere semeac,... ez dizuet lantegui charric ez dizuet eraguin nai, eta badaquizute nere borondatea zuentzat; baña nai nuque Ignacioc ere icusi ditzan Pachic icusi dituan gauza ederrac.

— Ez andria, ez oraiñ ez degu astiric orretaraco... beste batean izango da, esan znan Ignacioc; eta au esanaz, artu cituan mayan gañean guertu ceudenac eta anai biac artu zuten echera bidea.

III.

Oraiñ icusico dezute nola izan leiquean egarriac egon eta uric ez gogoratzea.

— Udaberrico arratsalde eder bat zan.

Don José eta bere illoba Indianoa, bacoitzac bere escopeta anca artean arturic, ceuden mugabaten ganean eserita, aurreco eguiari... eta jauzauncaz cebilltzan erbi zacur eder biri beguira.

— Osaba,— dio Angelec,— Uste det pintoc eta Leonec lorratza galdu dutela. ¿Obe ez guenduque echera joatea? — cergatic illuntzera dua eta bero. ri ez da gausaco gabaz bide chior abetan ibilteco.

— Arrazoya dec Angel; arratsaldean asco ibilli ez baguera ere, oso necatua arquitzen nauc;

Abarca zar batec aña ez diat balio, Angel, eta onesquero, obe izango diat nic neguan suan ondoan eta udan itzalean, paque, paquean egotea.

Osaba illobac jarri cituzten escopetac bizcarrean eta fiüt fiüt zacurrei chistu eguinaz, jechi ciran mendiayac bera.

Angel cijoan aurrena, eta echera bidea utziric artu zuan Eche-alaira cijoan bidea chiorra.

—Nora goaz; ¿Eche-alaira?—esan cion Don Josec...

—Bai, osabi; Anche atsedengo degu pisca bat, eta nic eran det trago bat ur—egarriac itotzen nauca eta.....

—Osabac, irribarre eguiñaz—esan cion, Ta..ta..ta..¡Angel! Aimbeste bastar icusiya isanic, ez daucac abilidaderic ire desioa escutatzeco.

—¿Cergaitic, esan du ori osaba?—esan zuan Angelec—ampolayaren colorea artuaz.

—Cergatic ez diat nic uste Eche-alain atze-guin lezaqueala, pago zar onen itzalean baño obequi; eta ur gosoagoric eran ere, or, altz tar-tean dagoan iturrian baño.

—Baña, emen.....

Esan zac. emen ez dagoala Micaelaric, picharra escura emateco.

—¡Osaba!.. Esan zac egua Angel... aitortu zac, Micaela icusteco pozac eramanten auela egunero Eche-alaira. ¿Cergaitz cioc gauza orretan, izanic bera nescacha on bat, eta ire asmoac sucenac?

—Egua da osaba, oingoan igarri dio.

—Guc buruba zurituta degunac urrutitican usaia artzen diagu.

—Bai ba osaba, maite det Juanen alaba, eta

uste dut berac erc ez daucala igüiric neretzat, eta barcatu beit osaba orain artean isillic iduquitzea gausa au.

—Ez duc isillic iduqui ez, Angel, cergatic ecia escutatu dic ire arpeguiac biotzac sentitzen duna.

—Baña ¿Cer eguiten duc ire intencioac eracutsi gabe Juaneri Fraiscari eta aurrena Micaelari berari?

—Ain dirade sucenac eta leailac ece, beldur naiz, osaba, arrazoirican aditu naico ez dute-la, beste asco eta ascoc pocic adituco lituquian arraizoiaren gatican bera gaitic...Ni naiz aberatsa, eta erac ez.

—Orrec ez dic arrazoyaren icenic mereci ¿Noisdic duc pecatu aberatsa izatea, aberaztasuna ecarri bada, ic ecarri dean becela, ere izardiarequin irabaciya?

—Ez, osaba. baña...dembora guchi barru... erac izan litezque ni becin edo ni baño aberatsagoac, eta orduan....

—Orduan esango ditec. (erac ez cergatic ez duten biotz eta pensamentu charric) baña bai beste mingaiñ lucen batzuec diruagaitican ez-contzen aicela.

—Arrazoia du osaba, ez citzaidan orrelaco gausarican bururatzen.

Onetan eldu ciran osaba illobac Eche-alaira.

Juane, bere emastea eta semeae ari ciran, echeburuco soroan, arta jorran.

—¿Cer berri da Juane?—esan zuan Don Josec,

—Ez dago gausa berrirican Jauna.

—Goician izan da Ignacio Vergaran eta Americano correoa etorriagatican, ez zan guretzat

cartaric...gure esperantzac eta gaberdico zacurran amesac berdin...

—Cer ames eta cer....esan zuan Angelec,..beti ur epelean ibilli gabe, oingoan gogor asi bear degu.—¿Eta cer nai du ba eguitea?..Duacela Jaungoicoarequin, gorde ditzela bostegun milla errialac eta gaztatu ditzatela osasunarequin..gu; bicico alguera guere pobrezan...

—Arrazoya du aitac, esan zuten Micaelac eta Ignacioc.

—Orise esaten dut neronec ere, gueitu zuan Fraiscac....

—¡Mocorda zar bat!—esan zuan Pachic,—escuan zuan achurrarequin, bost edo sei artalandara zatituaz.

—¡Tripa errel!—esan cion amac.—I becela izango gaituc,..dirua beste Jaungoicorican ezagututzen ez decan ori! ¡Orrechec galdu bear au il! ¡Orreche gatican ustelduko aiz i carcelan battean....

—Bai Fraisca, bai asco da—esan zuan apaizac —oinguau parte arrazoia dauca. Neri beguitantzen zait, alferra izango dala, berriro escribitzea cergatic ezagun da testamentarioac fede gaiztoan dabilzana, eta nic uste dut onena izango litzaqueala ceutaco bat, sartu onciyan eta—gari berriac arte esanaz—bertara joatia....

—Juane ez dago orretaraco edadean..Pachic, ez du escolarican...

—Berac ditu culpac jauna—esan zuan Fraiscac—amaica aleguiñ eguin zayo bere demboran, baño guelditu zan, goico abe zar ori baño escola gueyago bague. ¡Ez du arreban antz aundirican! gaisoac, ez du izan Ignacio beste maisurican.

Lau egun ez dirade esribitzen asi zala eta eguiten ditu esola batzuec ederragoac.. ¡Erai beguiratua choratu eguin lezaque!

—¡Bai!—esan zuan Pachic—ori, zayatzen da icasten..Don Angelen aurrean lotzatzen dalaco, esribitzen ez daquila esaten.

..Micaela jarri zan chingarra baño gorriago.

=Ondo eguiten dic—esan zuan amac—ez, ibecela izango duc achur querten ori...

—Paquea, Fraisca; ¡paquea!—esan zuan Don Josec;—esanac, esan, eta goacen beste articulo batera..Ignacio..izango uque animorican liña potzu audi arretan sartzeko?

—Apaiz jauna—Nere aitac eta nere amac aguaintzen badirade ni joango naiz, munduan azqueneraño.

¡Ay Don José!—esan zuan Fraiscac—¡Nere zabeleco seme maitea, ichasora bealdu!

—Arraizoá dauca Fraiscac—esan zuan Juanec—guizona, idiya dabillen lecuan.

—Ez zazute umequeriaric esan—dio Angelec—Ichasoan becelase etorri lezaque, isteric guchien degunean, lurtean ere eriotzaco ordua. Ínor, ez da itotzen Jaungoicoac nai ez duanian, eta arec nai duanian, ito lezaque catillu bat uretan ere...

—Egui aundia Don Angel—esan zuan Ignacioc.

Ia, ba aita, baldin beorrec eta amac nai badute, joango naiz salto bian Americara eta beriala naiz biurtu nere bostegun milla eta ondarrac arturic poltzan, cergatic, negar garria da, emen pobreac egonik, gure champonequin farra eguin decen prestuez aiec.

—Arrazoia duc—esan zuan aitac—¿Cer deiz-
quiozu zuc Fraisca?

—¿Nic cer esatea nai dezute?

—Zuec eguiten dezutena icusi, eta.... Ama
Virgiña Carmengoac gorde dezala, nere biotzeco
semea.

—Au icusia dago—esan zuan Don Josec—Eguin
ditzagun gañera bear diraden prestamenac eta
joan dedilla Ignacio aimbat laisterren.

Andican zortzi egunera zartu zan Ignacio,
Donostiatrican ateratzen zan onci batean; ango
esagun batzuentzat, Angelec eman ciozcan carta
batzuec eta Don Josec nai ta nai ez, poltzan ja
rri ciozcan urre zar batzuec berequin cituala.

IV.

Ignacio indietara joan zanetican bost edo sei
illabetera, Eche-alaicoac ari ciran goiz batean,
gosaltzen, galdera ori bat esnes betea aurrean
zutela....

Nai gabe aundiak igaro bear izan cituzten eche
aretan..Micaelac galdu cituan bere colore ede-
rrac; Fraisca eta Juane ceuden oso narrastuac
eta danac ezagun zuten eren arpeguietan, bio-
tzac negarrez ceuscatele.

—Micaela..esan zuan amac—¿Cergatican ez
dun jaten?

—Jaten ari ez naiz ba ama...

¡Bai..eta oraindic ez dun macaduric aoan sartul!

—Ecin nezaque, nai ta ere, ama.

—Jateco gogorican ez badun. contu eguin zan botica dala, eta ortzac estutuaz..barrura..cergatic jaten ez duana, badaquin..ill eguiten dun..
¿Bana..cerc quendutzen din gogoa?

Alferric da ori galdetutzea—esan zuan aitac. Angel, gaisoric dago, eta onec ere alase nai du.

..Eta jarrico da, eta ilco da.—esan zuan amac. Gosaldu zan, Micaela, beguira ceñen gosoa da-goan esnea. ¿Nai dun arrautza bat auspean epel-tzea?

Bañi ez izan gogorican ama.

¡Alaba! iduqui ezan confianza Jaungoicoagan Angel sendatuco dun aurqui, eta joango ditun debru echera naigabeac.

¡Ay nere ama maitea! Baldin, Angel iltzen bada, ilco naiz ni ere.

¡Ill! ¡ill! Ez ezan esan choraqueriaric nesca... Barberuac esan din oquerrena igaro zala ¡cerba! ¿Ari bacarric guertatu al zayon eizean dabillela, tiroac erten eta eritzea? Amaicacho baditun ala-coac, sendatu eta ecer izan ez balute becela guelditzen diradenac...Eguia dun, lenbici sinistru guenduala gausa oquerragorembat baña orain Jaungoicoari esquerrac ez cegon cergatic beldur izan.

¡Au gueyegui da! —esan zuan Pachic—lurrera botas escuan ceducan collara—¡Beti indianoa gora eta indianoa bera! Berregun milla deabruc eraman bazuten ere ez zan ecer galduco.

¡Pachil!—esan cion aitac—Ez ezac Angel enic aotican atera bedeincatutzeco ez bada.

¡Bedincatutzecol!..Ematen digunagatican....

—Ematen ciguc, guc mereci degun eta bear degun baño gueyago.

—Ba nic esaten dut, sequen audi bat dala....

¡Pachil deadar egun zuten aitac eta aman maitican jaiquias! ¡Echea bete urre iduqi eta ala ere, utzi lana egun dezagula astoac baguiña becela!

¡Damugarria da, tiroac sayatzetan jo zuan becela ez jotea garuñetan.

¡Isilic egon ari isilic, lotzagarri eta pisti gaito ori!

¡Ez naiz isilic egongo!

—¡Ic, galdu bear gaitue! ¡ic, bicia quendu bear diguel! ire anai guisajoa joan zan ezquiero, ez diguc utzi, egun bat bacarra, paquean igarotzen. ¡Ay! nere biotzeco Ignacio maitea! ¡Ay! Ura echian egon balitz, beste gausaric isango uen.

Eta ama gaisoac eman cion negarrari, Micaela ere ala cegoan eta aitac itzic esateco almenicangabe, macurtu zuan burua eta erori citzaizcon beguietatican paparrera ur aleac baño negar malco audiago bi.....

¡¡¡Madaricatua izan dedilla betico, gurasoen beguietatic negarra ateratzen duan umea!!!...

Naigabez beteric guelditu ciran jan baño negar eguiteco gogo gueyagorequin.

¡Juane! ¡Juane! deitzen zuan guizon batec eche aurreco larrañetican.

Juane..alcandoran escu muturras beguiac igortzias atera zan leiora.

¿Caiso Simon! ¿Cer dacartzu onera?

—Berri onac Juane..Atzo, Vergaran izan nin-

tzan eta corriuan eman ciden Americaco carta bat zuretzat—esan zuan Simonec—chapeletican carta aterias. Nola bart beranda etorri nintza a ez nuan aterican jo nai izan.

Au aditu zutenean danac arrapastaca joan ci- ran larreñera eta Juanec artu zuanian Simonec escuetan ceducan carta, pocezco garrasi bat eguin zuan esagutzean bere semearena zala. Fraiscac quendu cion escuetatican eta asi zan cartari laztanca paper gustiya negarras bustiyaz.

—Beste aimbeste eguin zuan Micaelac, amac utzi cionian.

Bacarric Pachi cegoan sorbaldac jasoaz ecer ez balitza becela....

—Baña...¿Certaco dirade aspamentu oiec ez badaquigu oraindican, Ignacioc artu dituan edo ez diruac?..Bai..Pachic, aitac esan zuan becela biotz gogorra ceucan. Ez citzaion ajolaric jaqui-tea bere anaia bici zala. Bere guraso cta arreba-ren biotzac betetzen cituzten posa sinisteco jaquin bear zuan bere anaia aberatza ote cegoan. Baldin ala ez izanic ¿Cer ardura citzaion Pachiri, biciric edo illic egon cedilla bere anaia?

Juanec, bereganatu zuan azqueñean carta, eta iriquias beldurres asi zan onela iracortzen...

Nere aita, ama, eta anai arreba maiteac; zuen gandican alderatu nintzan ezquero, naigabea eta tristura izan dut lagun ordu guztietan. Ni, Americara joateco, Donostian sartu nintzan onciac, izan cituan bidean, milla eta milla, estrapuzu, baña ala gustias ere urreratu guiñan sorioneco indietaraco lurrera. Danon ustea zan seguru guiñala baña gure Jaungoicoac eracutsi nai ciscun oraindican, estutazun gogorragoac... Beingo,

beingo batean atera zan aice motizu garri bat, aguertu ciraden olatu batzuec mendiayac becelacoac, illundu zan cerua eta turmoi orruas bat batera asi ciran orruntz, onuntz galda, galdan dagoan burnia baño gorriagoco oñastuac.

Gure oncia, tantai luceac aiceac eramanic eta chimistac zatituric cebillen ur gañean, gastaña orbelá ibiltzen dan guisa uda azqueneco aicearequin, noiz baño noiz gueldituco olaturen baten azpian gueiago es aguertutzeco. Alako batean, tarra, tar, tar, tar, eguiñaz banatu zan onci zarra, eta nerequin cijoasen lagunic gueienac iscutatu ciraden ichasoaren barrenera gueiago ez asalduzeco. Nic orduan agur eguiñaz mundu oni, artu nuan escuetan, echetic atera nintzan vesperan nere ama gaisoac lepotican cincilica jarri ciraden ama virginari carmengoaren escapularioa, eta biotz gustitican muñ eguiñas, escatu nion gorde cezala conveni bazan, nere bicia ez neregatican baicic nere guraso maiteac izango zuten naigabe samiña gatican, eta salto eguiñaz ichasora, eldu nion ur gañean cebillen zur zar beteri.

Zur onen laguntasunas; piscaca, piscaea nijoan guerturatzentz ihas bastarrera, baña nere indarrac aitu ciraden eta ichasoa zan gueroago eta asarreago, Credo bat esan nuan eta banijoan beguiac betico ichitzera, icusi nituanian neregandican ez urrutira iruguison erdi larrugorrian chalupa chiqui batean, euren bicia galtzeco zorian neregana cetocela; cerura beguiac jasoas eguin nuan azqueneco aleguiña eta osta, osta, eldu nintzan chaluparen sayatzera. Artu ninduen besoetan, cristau on aiec eta andican laster jarri nuen nere oña, aspaldi icusi ez nuan lur legorrian... Baña ¡cein erruquigarria!.. Nere:

besoac ceudenete nic, eta nere escuac danac odolduac; zutiric egoteco gauza ez ninzala... Serala, bear becela, maitatuco ez ditudan guizon ayec, egun zuten augalla bat, etzan ninduen bertan eta basoric, baso eldu guiñan erri chiqui batera, nun euren ume bat banintza becela, eta ama batec becin naitasun bigunarequin sendatu eta zaitu nindien. ¡Jaungoicoac, sartu ditzala ceruan erdi erdian, aiñ biotz ederreco guiznac!!

Piscabat indartu nintzanean, biotzaren erditic ezquerrac emanas nere onguilleari, joan nintzan nere osaba bici izan zan errira.

Icusi nituan osaba dichosoan testamentarioac eta.....Bana..ez dut nai zuen biotzic sauritu, guison gaizto ayec neri esan eta egun cisquidaten gauzac esanaz.

— Esan ciden. gueznrretan nebillen bat nintzala eta burla eta farra egunaz bultzaca bota ninduen echetican..

Baña guisonen artean billatzen ez badegu justiciaric gure Jaungoicoac beguiratuko du guregaitican. Ala ba, esperanzarican ez galdu, eta bien bitartean poztu zaiteste besteric ezean jaquiteaquin bici naicela gustion oneraco bear eguiteco.

Icusi ditut Angelen adisquide batzuec ere, eta euren artean euscaldun bat, ceñec nai didan anai batec becela.

Danac esan dire lagunduco diratela aleguiñ gustian.

Dembora ascocho bearco dut gausa abec garbitzen cergatic testamentarioac gagortuac daude guri ostutako armaquin, eta diruac emen, or becela, ate asco iriquitzen ditu...

Uste dut oraingo, esconduac egongo dirala Angel eta Micaela, eta ez dago cer esanic bicico diradela, ainguerauc becela, Don José eta andra Joseparen compañian, egunero gogoratzen naiz gustoquin... Escumuñac Simon ustarguiñari, Eche berrico Mariyari eta nerequin oroitzan dan gustiari, eta amac segui dezala erregutzen oi duan becela Ama Virgiña Piedadecoari, ni gorde nazan orain arte becela.

¡¡Ay nere sableco pusca!!—esan zuan Fraiscac—escuac gurutzatuaz!! ¡Cembat estutazun, eta cer guertutican icusi duan eriotza nere seme maiteac!! Baña Ama Santisimac gorde du.

...Balio izan dionagatican... esan zuan Pachic.....

¡Pachi!---esan cion Aitac, secula baño aserreago—;Oiec ez dirade zure gurasoetatican artu dituzun lecioac.....

¡Gu erruquiñac! esan zuan Fraiscac—negar eguiñaz ;Ume onechec quendu bear digu biciya eta bialdu bear du bere burua calabozon batera!

...Nola Angel cegoan jaiquitzen ez zala eritu zan ezquero sarri bialtzen zuten Pachi aitac eta amac aren berri jaquitera.

Pachi zan gueroago eta zacarragoa eta aimbeste naigabe ematen cituan echean egunero bere gurasoarice, asi ciran osasuna galtzen beldur izateco moduan.

¡Beste gausaric zan Pachi, apaizaren echean! izutuac ceuden aren arguitasunarequin eta izqueta legunarequin; eta andra Josepa eroturic Pachi ala icusita, guertatu oi cion maquiñabat mocadu goso eta eracusten cioscan, nun eta nola ceuden echeco gausa guztiac.

V.

San Miguel egun batean, eguzquiac irimo gañetican igues eguiten duan sazoiean, quee beltz mordo batec irteten zuan, corosotican Anzuelara datorren bideaz gañean cegoan pagari batetican, non señale zan chendorren bat cegoala egosten.. Eta ala zan izan ere.

Icasguin bat cendorrari bete garriya sartzen, eta beste iru edo lau aren lagunac, ari ciran pagari barrenean subill guertatzen beste bat zututzeco.

Cendorraren garaico aldean icusten zan echabola bat, iru pago adarrequin eguiña eta garos azpitic eta zoies gañetic eztalia.

Icasguin aietaco bat joan zan echabolara, cirri bat eguin cion echabolaco ate muturrian cegoan zuari eta non cegoan gal, gal, gal, egosten, topincada bat baba, jarri zuan talo burnia berotzen eta botaric gambela batera ura, gatza eta arto iriña asi zan zaplaca orea guertatzen taloac iguiteco.

Abec erre cituanian, jarri cituan escuac trompetan guisa eta eun u. u eguin zuan deadar luce bat... Bai..eranzun cioten lagunac eta utziric aizcorac pago guerrieta zartuta abiatu ciraden echabola aldera, batec guerricoa lotu, besteac sintz eguiñas.....

Jan citusten baba eta taloac, erre zuten pipada bana, baña ala ere iñor ez zan muguitzen... Illundu zuan izarrac aguertuas eta ari ciran icasguiñan chuchu, inuchu alcarri belarrira itz eguiñas; esagun zuten sosegus ez ceudela....

Guizon bat asaldu zan bideac ciar eta asi zan pagaria gora echabola aldera..ura icusi zutenean jaiqui ciraden icasguiñac....

Guacen, esan zuan guizon arec, ez dezagun demborarican galdu, cergaitic nic goíz joan nai niquec echera iñorc gauza charric sospecha ez dezan....

Guacen ba—eranzun zuten—icasguiñac.

—¿Ecer badaramazute?—esan zuan guizonac.

—Ez da ecerchore....

—Or compon, Mari Anton...

—Nic ceramasquiat bi pistoleta eta cañabeta....

—Gu goaz lapurretara eta ez eriotzaric eguitera—esan cioten icasguiñac....

—Bacoitzac ondo datorquiona eguin dezala—esan zuan pistoleta dunac.

—Baña.. ez dezagun demborarican galdu.. Bidean esango dizuet cer eguin bear degun...

Beltzitu citusten arpeguiac iduri bustiarequin eta joan ciraden pagaria bera..

—Cergatican ez dator Michel?—esan zuan armatuta cijoanac.

—Chendorra bete garri esque dago eta bear da bat emateco—erantzun zuten icasguiñac—Gañera, aren lanac ez du guchiago balioco, gueguiten degunac baño.

—Nola izan lezaque ori?

—Cantuau eguiñas....

—Certaraco?

—Oñatitican datocenac aditu dezaten.. eta bigar edo etzi oquerrican balitz, esan dezaten San Miguel arratzean icasguiñac, pagarian ceudela...
¡Mutill azcarrac cerate!

Bai..eta egun dezagun aberatzac izateco bidea.

Andican ordu erdi batera cetocen coroson barrrena bi guison, elatzean cincilica dagoan abarca baña igarragoac eta ucalon dotatican ere berriqueta cerioela. Cetosten bacoitzac bere cana bizcarrean zutela eta loturic aien puntan aspandar pieza laurden bana.

Pagari goenean aditzen zan canta bat esaten zuana...

Goiz, eguardi eta arratz
Beti porru salda,
Copatzu nai izatea
Arrazoi ez alda;
Burrun, burrun bun
Copatzu nai izatea.
Burrun burrun bun
Arrazoi ez alda.

Micheldeabru orrec ez dic beste amesic, capáneri burla eguitea baño—esan zuan batec.

—Eori ere ez aiz ba isilican egoteco—esan zuan lagunac—;cergatic eranzuten ez dioc? jaquiñic ic daquiscan becela, ichubatec aña canta..?

Aspaldi onetan joan zaisquidac cantatzeko gogoac Don Josen echean igarotzen danarequin,

—Arrazoia duc—chit damugarria duc india-noari guertatu zaiona.....

—¡Angel guisajoal!—sinistu zac..Baldin da bal-



din ura iltzen baduc gure Manuri ez zaioc secula berican legortuco.

..Berac eman ciocan lembicico bularra eta nai cioagu gueure seme bat balitza becela. ¿Eta Don José guisajoa? Icusicó duc Angel iltzen dada, laster jarraituco cioc ondoren.....

Ala itz eguiñas bacijoacen capañac eran bidean eta Michel guelditu zan, gueroago eta gogoazgo cantari...

VI.

San Blasco apaiz jaunaren echea, cegoan inchaur arbolas inguratua eta eleizatican oguei rembat cana becela, zan, arlanduzcoa eta egoc aldera cedusan baretza eder bat.

Alde onetarase ceuden lo eguiteco aposentuac eta bai ere zucaldea. Zucaldeco leioan azpian cegoan echecho bat, nun iduquitzen citusten, simaurras gañera, achur, laya eta ostiango joan eterriac.

Dembora arretan oitzen zuten nola pobreac ala aberatzac, goicean goiz jaiquitzea eta orrengaitican, arratzeco zortzirac ezquero audi eta chiqui egon oi ciran ancas gora.

Lembicico loa izan oi da gozoena eta astunena... Don José.. lo bete beijian cegoan, andra Josepa ere bai.. Angel bacarrican cegoan ernai cergatic nai ezac loa gal eracitzan cion.

Zacurrac ocolluan asi ciraden zangas...

¡Osaba!—deitu cion Angelec Don Joseri alboco aposentura..

Apaizac ez cion eranzun....zacurrac ez cira-den isiltzen josaba! josaba!—deitu cion biga-rren aldiz illobac.

¿Cer nai duc Angel?

—Pintoc eta Leonec estu zauncatzen dute eta iruritzen zait echechoco tellatuan nor edo nor dabillela.

Bai.. aiceac erabilico cituc tellac eta zacu-rrac orrengatican zauncas arico dituc.

Leon eta Pinto ari ciran gueroago eta ga-rratzago norbaitec larrua quentzen bacioten becela.

¡Osaba!—deitu zuan berriro Angelec—Uste dut zucaldeco leioari bultza eguiten diotela.

—¡Ez ari chorua izan Angel!—esan cion Don Josec erdi lotan, aician otzac dituc oic...

—Icusi eguingo degu ori—esan zuan Ange-lec—bere artean, eta zutican egoteco indarric ez iduqui arren, jaiqui zan oguetican eta isil isilican iriqui zuan leioa baña aiñ illun cegoan eta alaco aiceric cebillen ecc ez zuan ez ecer icusi eta ez ecer aditu.

¡Ichi zuan leioa eta bacegoan oe aurrean...

Pinto eta Leon ari ciran gueroago eta es-tuago.

Angelec aditzen cituan len baño obeto tella otzac eta zucaldeco leioari eguiten ciozcaten bultzatuac.

...Ez, icusi bear dut cer dan ori—esan zuan

bere artean eta escopeta artuas joan zan zu-caldera nun cegoan argui illun bat, catillu ba-ten olioas jartzen zuana egunero andra Josepac, Angel eritu zan ezquiero.

Angel zucaldera eldu zanean, rau, eregui zan bat batera leioa eta arpegua eta escuac beltztuta ceduzcan guizon bat aguertu zan bertan pistoleta escuan zuala... Angelec apuntatu cion bere escopetarequin baño tiroac ir-teteco astirican gabe erori citzaion escuetati-can escopeta, zatitua lapurrac tiratu cion pistoletazoarequin.

Lapurra, beste iru ondoren cituala, sartu ciran salto batian barrura; eldu cioten danen artean Angeli, bota zuten lurrera, estali cioten aoa zapi batequin eta lotu cioscaten escuac eta oñac.. Beste aimbeste eguiñic Don José eta andra Joseparequin, artu citusten diru eta gausaric onenac eta balio aundieneacoac... Ongui ezagututzen cituan lapur aietaco batec, eche aretaco socoac, bada zucen billatu cituzten batere oquerrican gabe ondo iscutatuac ceuden onzaco zarrac eta beste gauza eder asco....

Bete citusten iru sacu eta nola ala zama-tuaz ez zan erres leiotican igues eguiten atera ciran atarico ate zabaletican.

Ausoac aditu zuten lapurrac eguin zuan tiroan otza, eta gogoraturic gausa oquerren bat, cebiltzan illunean, batzuec maquillaquin, eta zuanac escopetarequin, non izan ote zan

otz ura, lapurrac aguertu ciradenean sacuac bizcarrean citustela.

¡Gueldi or! deadar eguin zuten lapur billa cebiltzanac, baña aiec orpoac jasoas asi cira-den iguesi.

¡Dimbil! ¡damba! aditu ciran tiro bi eta lapur bat iztarrean eritua erori zan musus aurrera... beste irurac salto eguiñic erreca-choa esmendatu ciran an guertuan cegoan chara baten eta chara ciar joanciran Jaungoi-coac daqui nora...

VII.

Lapurreta izan zanetican zortzi illabetera, udaberrico arratzalde eder batean, cijoacen D. José eta Angel, Echealai aldera.

Escopeta ordes, ceramaten, escu maquilla lodi bana eta aien arrimoan pauso ematen zuten neques, bide chiorra gora.

Ecin ezagutu citzaquean apaiz jauna. Aren lengo arpegui argui eta ederra, oso narrastua cegoan, eta bere beguiracuna tristean icusten ciran aren animaco naigabeac... Ez cegoan asco obequi Angel; guisajoaren arpeguiian ma-curra eta gorputzaren argaltasuna icustean inor ez cion astebeteko bicirican emango.

... Apaiz guisajoac, bera laguntazun premian arquituagatican lagundu eta animatu-tzen zuan bere illoba.

¡Angel guisajoa!—animatu ari esaten cion—
¿Ez duc icusten cer arratzalde ederra?... Muga
gustiac loras eta arbola danac ostos, betetzen
ari ditut, eta adar bacoitzean chori bat ari duc
cantari... Juanac.. joan... Oroipen micatzac,
astu eguin bear dituc. ¿Cer nai duc aposta,
egun guchi barru ecer izan ezbau becela
aegoala?

¡Ay osaba! Eguia da, arbolac, celaiac, cho-
riac eta inguru gustiac farres eta cantari dau-
dela, baña nere biotza, negarrez dago!

Lenago ere—esandiat—juan zana joan uen.
Orain eguin bear duc igorotacoac astu eta
len bait lasterren sendatzeria... Oraindican
gaztea aiz eta demboras ezconduco aiz Micae-
larequin eta danac bicico gaituc ongi.

¡Cer! ¿Ez alaiz gauza Eche-alairano joateco?
—Beldur naiz osaba, elduco ote naicen nic
chit opa izanagatican.....

--Sayatu gaitecen ba... Micaela gaisoac ez
ciducac, gu besterican, nori beguiac itzuli eta
iñola aldegula ez cioagu utzi bear bacardadean
bere anai gaiztoac ematen dioscan tratu go-
gorraren artean.

¡Bere anaia! ¡Ay osaba!—Ez egonic lurrean
justiciarican alaco pisti gastoarentzat—¿Non
da Jaungoicoarena aguertu gabe? ¡Angel!
Jaungoicoa, justua duc eta beti ceduzcac go-

goan, guizonac eguiten ditugun gauza charrac eta onac. Pachic.. naigabeac emanas quendu ciec bicia bere gurasoari, eta sinistu zac, lencho edo gueroago arquituco duc mereci duanarequin.

.. Onela izquetan eldu ciraden osaba illobac Eche-alaico atari aurreco inchaurretara.

Orduanche cotorren Micaela barrenetican, mantalean artalea arturic eta purrra esanaz larrañean astarca cebiltzan egasti batzueri..

¡Gaisoa cegoan beltzez jancia!

¡¡Lutua ceducan gorputzean!

¡¡Lutua biotzean!!

Aleguiñac eguin cien osaba illobari sartu citestela zucaldera, baña aiec naiago izan zuten eseri, atari aurrean cegoan liña arri baten gañean, cergaitican ez zuten indarrican escallerac gora ta bera ibiltzeco.

—¿Eta Pachi?—galdetu cion apaizac.

—Goicean Vergarara joan da jauna—eranzun cion Micaelac.

—Artoac ereiteco egunetan gaude, eta oraindican ez dezute ancaric soroan sartu, icusten dedanes.

¿Cer asmo du zure anaiac necazaritzeari ala atzera ustean?

¡Ay Don José!—Ez daquit nic, cer pasatzen dan gure echean...

.. Bi edo iru bidar izan guerade deituac Vergarara, Pachi eta ni, aitortzeco beorren

echean eguin zan lapurreta arengatican carcelan sartu zuten icasguiñac cerbait ezanic....

Aspaldi onetan ez da iñor gurequin oroitzen, baña ala ere nere anaia joaten da Verigarara egun bis, bat... Ez daquit nic cer esan eta ez cer pensatu eta daucat erru gaisto bat gausa onechec, ez ote cituan nere guraso maiteac galdu.

¡Ay nere aita eta ama biotzecoac!—esan zuan Micaelac negarra chirrioan ceriola....

—Ia, ba, Micaela.. sosega zaite pisca bat—esan cion apaizac...

—Conformidadea da, cristau gustiac degun zor audi bat. Zure gurasoen bicia Jaungoicoana zan eta berac quendu cien.

¿Ayenatu bear guera gure Jaungoicoac eguiten duanagatican?

—Paciencia ba, Micaela eta esan eguiguzu, cere, zure ustetan il cituan zure guraso sorionecoac.....

... Izango dira sei edo zazpi illabete esan zuan Micaleac—asi zala etortzen gabas gure echera, Pachiquin itz eguitera ichura gaistoco guison bat..

.. Bai nere gurasoac eta bai ni arritu eta icaratutzen guínan gausa arequin.

Arratz batean, oeratu guínanetican laister icusi nuan nere aita, jaiquiric oetican, cijoala oiñ puntetan. Pachin aposentuko atera. Maiz oi zuan becela orduan ere cegoan nere anaia

len esan dedan guison arequin atea barrendic
guiltzas ichiric.

Ordu laurdenenbat egon zan aita, ate on-
doan eta biurtu zan berriz oera...

Andi puntuco sentitu nituan nere aita eta
ama gaisoac, sotinca eta negarrez urtutzen
ceudala..... baña issilic, ni lo nengoalaco
ustean.

Biaramon goicean jaiqui ciradenean osta,
osta cebiltzan zutic eta esan citzaquean igaro
zutela gaiso aldi izugarrirembat... eta cerbait
ian bear zuan, cergatican andic iru illabetera
il zan nere ama maitea eta illabete gueroago
ichi cituan betico beguiac nere aita guisajoac...
—Eguia balitz--esan zuan Angelec--becoquia
joaz ezcu zabalaquin--eguia balitz neri orain
bururatu zaidana...

.. Issilican egon ari Angel—esan cion osabac
--alaco gogorapenic eguin gabe... ¡Ori eguia
balitz infernuac ere ez liquec artuco!

.... Micaelac ez cion igarri. osaba illobac
esan nai zutenari...

..Eta...;Cer bicimodu eguiten dezu, Micae-
la gaisoa gurasoac il ciraden ezquero, zure
anaiarequin?—esan cion Angelec.

;Cer bisimodu esaten du! Secula ez diot
arpegui arguiric icusten.

..Secula ez dit itzic eguiten, eta maiz, os-
ticoca eta golpeca zauritzen nau,—esan zuen
nesca gaisoac--beguiac igortzias amantalaren
ertzaquin....

¡Puzuni gaistoal! esan zuan Angelec—ucabillac estutuas.. Ni egongo naiz beraquin eta nic esango disquiot mereci dituanac.

—Ez, ez, ez, Jaungoicoaren amorioagatican ez ecer esan Pachiri--esan zuan Micaelac bel-durrez icara— cergatican ilco ninduque balequi nic ecer esan dedanican.....

—Ondo da, ondo da,—esan zuan Don Josec.

--Iduqui zazu paciencia egun batzuetan ;Jaungoicoac emango dio osasuna Angeli eta orduan nere illobac ateraco zaitu, otzo gaisto orren atzamarretatican.

—¡Jaungoicoa gatican bada, isildu gaitecen!
...an nun datorren nere anaia...

Alase zan. Orduanche cotorren Pachi eche azpico langatican aurrera.

Danac isildu ciran alcarri begiratuaz.

Pachi; icusi cituanian Don José eta Angel piscabat astoratu zan, cergaitic beldur zan cerbait esango ciotela mereci zuan becela, baña laister bereganatu zan eta asi zan copeta illuntzen.

¿Nondican nora abill Pachi?—esan cion apaizac.

Simonenian izan naiz lengo egun batean aguindu nion ustariya eguin ote duan.

—Dembora asco bear izan duc emendican Simonenera joan etorria eguiten.

Simon orrec ba beraquin bascaltzeco paquerican ez dit eman eta ala guelditu naiz.

Apaizac eta Angelec sinistu cioten eta eren artean gogora zuten, Micaela descuidatu eguingo zala esatean Pachi Vergaran zala.

Eta..;Cer asmo daucac Pachi?—esan cion Don Josec—ausera danian artuac erin citustec eta ic oraindican zoibat bacarrican ez duc itzuli.;Cer eguiteco asmoa duc?

—Ez erein.. da nere asmoa...

—¡Silican ago alacorican esan gabe!—esan cion Don Josec.

Echea eta lurrac saldu, eta Oñatira nua bici izatera nere arrebarequin. Onen balio arequin jarrico dut denda coscor bat, eta oguitaraco lain ateraco aldegu; eta ez beti emen lertutzen aitu taloac eta babac jan eciñican....

—¡Bastarra saldu!—esan zuan apaizac cerura beguiratuas—¡Echea saldu esan duc!—¡Ez duc posible Pachij! Ez diat icusi artian sinistuko ain biotz gogorra eta ain buru macurra dedanican....

¡Ire aurrecoac jayo eta bici izan ciran echea! ¡Ire gurasoac jayo, bici eta ill, ciraden echea! ¡Eori jayo aicen echea! ¡¡Pachi!! Edo chanechetan abil, edo erotu eguin aiz....

.. Ez bata eta ez bestea—esan zuan Pachic—asiyas asarratzen...

—;Cer sartu daucate eroc iñoren gausatan? —Ni naiz anaiaric nausiena; nere aita il zan testamenturican eguin gabe eta nic eguin nezaque eche onequin, gogoac ematen didana.

—Echea eta lurrac, ireac becela dituc ire anai arrebanac...

Nic emac ezquero bacoitzari, aguinduac dauscaten bostegun ducatac ez du iñorchoe cer icusirican.

¡Cer negar garria! ¡Cer gaiztaqueria!—esan zuten batera, osaba illobac—Micaela gaisoa Pachin aurrean beguiac jasotzen atrebitu eciñic negarrez cegoan bitartean.

—Esan dut lenago ere—Nic eguingo dut, gozoac aguintzen dirana— esan zuan Pachic gue-roago eta asarreago. Zaitu bezate euren echea eta ez ausocoa, cergatic iñoren buruco miñac, astoac iltzen ditu.

Pachi giratu zan beste aldera bizcarra jasoas eta sartu zan echean cantatuas.

Nic badut liburucho bat
Duana esaten,
Iñor ez dedilla asi
Auso gobernatzen.

¡Micaela!—esan cion apaizac—atos gurequin. Igues eguin ezazu, anima galdu orregandican eta ez zaiozu gueyago arpeguira beguiratu.

¡Ay Don José! Ori eguingobanuque ez nuque ordubeteco bicirican—esan zuan Micaela gaisoac beldurras icara apaizangana arrimatuas.

¡Micaela! ¡Micaela!—otz eguin zuan Pachic zucaldetican—¡Or ez zaitzu ecerere galdu! ¡Or, ez daucazu cer eguinican!

—Ez zaiozu casorican eguin, eta atos, atos, gurequin—esan cioten Don Josec eta Angelec nesca gaisoari escu muturretican elduas.

..Ez, ez, Ama santisimiaren gatican!

..Icusico balu, ni eroquin nuala, egun pauso eman baño lenago, ilco guiñuzque irurac. ¡Agur! ¡agur! ¡Obeitu eguin bear diot! Bestela, ni erruquien—a-san zuan Micaelac Don Joseri eta Angel escu banatatican elduas eta belaunac icaras cituala. Eta sartu zan barrura negarres eta atzera beguiratuas.

Osaba—illobac asi ciraden bide chiorra bera itzic eguiteco almenican gabe eta noiz baño noiz negarrac ertengo.

Galtzadaco zubichora eldu ciradenean eseri ciran atzeguitera...

Tan, tan, tan, ari zan joten. Ave maritacoa San Blasco campaia. Apaiza eta Angel jarri ciran buru utzean eta errezzatu cituzten iru Ave-maria....

Sinistu beza osaba—es-an zuan Angelec—errezzatu zutenean. Sinistu beza; Pachic salduco du echea eta ez da conveni beste escuetara aldatu dedin Eche-alai. Orise erosten empliatuco ditut, lapurrac utzi cisquidaten diru apurrac eta Ignacio datorrenean Jaungoicoac nai badu etorri dedin... etorri dedilla aberatz, edo etorri dedilla arditican gabe.... esango diot—¡Ignacio! Or dancazu zure gurasoen echea, zure anai madaricatuac saldu zuana, eta Jaungoicoac nai izaten badu, Micaela eta ni ezcondu gaitecen, Echealaian bicico guera Ignacion etorrera arte eta gure aleguiñac eta gure izardiac jantzico ditu orain gorri dauden lur ederrac....

¡Ori Angel, ori! es-an cion osabac lepotican elduaz; lurraren gañean ez duc ire biotza baño ederragorican....

¿Simon ustarguiña ez da, an datorren ura?
—es-an zuan Angelec.

Bai.. bera duc—esan cion osabac eta ez dic echetican datorren antzican. ¡Guesurren bat esan dic Pachic!

Simon jaietako arropaquin eta asto bat aurrean zuala eldu zan zubira.

Arratzalde on, edo gabon onesquero Don José compañiarequin — esan zuan Simonec astoari *issssooo* esanas.

¡Caiso Simon! ¿Nondican zatos?

—Or.. Tolosa aldian izan naiz ustarrí batzuequin.

¿Eta ecerqui eguin da?

—Ez dut ba gausa aundirican eguin jauna. Bi egunian an egon naiz eta erequin atzera ez etorceagatican, utzian eman ditudala contu, ardit baten irabacirican gabe.

¿Eta cer eguingo nuan?—Gaurco egunean echetican campora dabillenac, poltza beti escuan bear du,—eta ala ere or be alde orretan—zai, zai, daude noiz bat artuco, larrutzeco; nic beñepeñ oingo biagian is isilic ederrac artu ditut—esaten diot—gaurco egunian eciñ ancarican atera lezaque echetican...

.. ¿Eta euroc, ¿Pasiuan izan dira? ¡Ondo alase, ondo!—Conveni zaizca orlaco ibili batzuec Don Angeli...

.. Bai ba.. Ustes, uste gabe, Eche-alairáño eldu guera.

¡Hola! ¡hola! Poliqui izan da..

.. Eta.. ¿Cer dio gende arec? ¿Ignacion berrirican izan dute?..

.. Egun urte badira icusi ez ditudala, ez Pachico eta ez Micaela..

.. Sori gaiztoan, ez dute ba, Ignacion berrirican...

.. Bai Ignacio echian balego beste ollarrec eguingo luque cu, currucu Eche-alaian.. Mundu onetan ez da izango amarie Pachi ori baño aur ouerragoric, jaio duanic eta bestela galdetu deiotela beran arreba sintzoari eta beran basterriari.

¡Ay! Juanec eta Fraiscac—ceruan egon ditecela—Juanec eta Fraiscac, jasoco balute burua eta orco joan etorria icusi, beriala liraque berris illic.

¿Badaquizu Pachi, echea saltzera duana?

¡Aitaren eta Semearen! ¿Cer esaten du Don José?—esan zuan Simonec siñatuas.

—Aditzen dezuna...

¡Ba! Esin sinistu lezaque orrelaco eroqueriran! ¡Echea saldu Jaungoicoan icenean!.. Ez nunque salduco nic nerea, mundu onetako urre gustiagatikan ere.. ¿Cer da gausa oberic? esan al iza-teabaño egunero. Sagar au, nere aitac sartua da; inchaur ori, nere aitonac; or egoten zan nere amona goruetan; an nere ama, gure praca zarrac compontzen; eta beste alaco milla eta milla gausa, nic ecin esan nitezqueanac.

¡Ah! ¡Pachi pardel!—Baldin Ignacioc balequi cer igarotzen dan bere echean, laister litzaque etorri eta galeraci Pachiri astaqueri ori eguitea! Eracutsiko lioque arc, norequin eta nola dabillen Pachi alferorri.

—Baaa.. Ignacio guisajoac, icusi ez dezan bere gurasoen echea iñoren mende; nai du nere illobac erosi...

¡Ongui asmatuba! Orainche erori naiz astotican Don José—esan zuan Simonec—iribarre eguin eta beguiac quiñatuas. ¿Orrela eguiia da

Micaela eta Don Angel escontzen dirala?.. Urte ascotaraco eta osasunarequin izan dedilla ni uz-targuiña naicen becela.

... Urre puzca balitz baña gueyago balio du nescacha orrec. Ama, ber bera atera da. ¡Eta cer bisimodua ematen dion gaisoari perdulario orrec. ¡Ay gure Jaungoicoa! ¡Cer gausa beltzac icusten diran mundu onetan!

—Baña nola Angelec, lapurtua izan arren, aberatzan otzac dituan Pachic; daducagu bildurra; asco paga erasi naico diola.

... Arrazoia du Don José.. ¡eta norc! ¡Pachic!.. Diruagatican zalduco luque bere adola ere.

Ba.. orretako eguin bear diguzu mesede bat Simon.

—Nere animarequin, eta nere biciarequin jau-na. Esan beza cer eguin bear dedan....

—Ceorrentzat balitza becela, Eche-alai erosi.

—Ez beza gueyago itzic atera. Bigar Jaungoi-coac nai badu mesa ondoan gañeracoa itz eguingo degu.

—Ezquerrac milla Simon.

—Cer esquer eta cer.... esquerrac izan oi dira apaiz—echeacoan...

..... Barcatu beit Don José.. Astaqueria bat ja esan nuan eta.... Aimbestequin gabon, eta bigar arte. ¿Nai dute echeraño lagundutzea?

Ez Simon esquerricasco eta escumuñac emasteari.

—Asco poztuko da.. eman beiote nere icenean ere andra Josepari.

... Bai eta gañera esango diogu bigar zu zato-ceneraco guertu iduqui ditzala sartaincara bat urdai azpico eta pichar bat chacolin.

¡Je, je, je! Ez dira gaizqui etorrico jauna.

—Bigar arte ba Simon.

—Ongui bijoaz.

Ustarguiña joan zan bere bidean eta osaba illobac asi ciraden eche alderia arrimatzen iguzquiac beciñ argui, eguiten zuan idarguia lagun zutela.

VIII.

Oñatico cale baster bateco, eche illun batean cegoan denda chiquit bat. Atean aurres, aurre, cegoan mostradore edo mai beltz luce bat ez gausas betea.

Denda areten zartutzen ciradenac guchic ecer erosten zuten...

Arantz cijoacenac joaten ciraden dirua artu edo dirua ematera ba, Pachin tratabideric mai-tearena zan, estu, estu, arquitzen ciraden necasari guisajoari odola zurrut egnitea. emanas dirua oguei errial bacoitzeco, lauren ira baciaquin illean.

Mai aren ostean egon oi zan Pachi, edo diru contatzen edo atza marrac contatuas conturembat suzentzen. Noicic beñean deitzen zuan an ostean cegoan ate chiqui batetican eta etortzen zan barrendic Micaela; liburuau jartzera anaiac esaten ciona.

—Baña... Micaela onec, ez zuan Echealaico nescacha eder aren antzican; cegoan guztiz arlo-te jancia, oso argaldua eta aren lengo larrosa colore ederrac biurtu ciraden bustin colorecoac.

Gaiso arentzat ez cegoan Jesus beteko atze-guiñic, beti lanean, secula ez arpegui arguiric icusi eta ez itz bigun bat aditu gabe, bere anaia-gandican. Erruquigarri aren sariya izan oi zan gosea itz gogorrac eta maiz belarron docoac eta osticarac. Micaela gaisoac ez zuan beste pocic, ez bada, bacarric arquitzen zanean, negar eta negar eguita, oroituas bere biotzeco guraso eta Ignacio maitearequin eta baita ere Angelequin. Aimbeste negarrequin beguiac ceduscan gaisotuac, baña ala ere gaiso aren españetatican ez zuan ertetzen ayene batec bacarric. Pachin beguiracunac usten zuan beldurres icara eta non cegoan ez cequiala. Beldur onequin baliatuaz eguiten ciozcan madaricatu arec, zacur amorra-tu bati opa bear ez zaizconac, eta icusirican bere arreba, arriari negar eraguiteco estaduan, orduan eta gogorrago izaten zan berarequin...

¡Bail! ¡Arechec, igarotzen zuan eguiazco martiroa!!

Illun arratz batean sartu zan Pachin dendan, arpegua eta escuac beltzac cituan guison bat, eta ez gabon eta ez berrion eseri zan socoan ce-goan aulqui batean.

Ura icustean, jaiqui zan Pachi salto batean eta ichi zuan guiltzaz dendaco atea.urrena, sartu zan barrenera eta icusiric, arreba, bere lanean cebillela, ichi zuan osteco ate chiquia ere, eta eseri zanean bere lecuan esan zuan.... ¿Cerc ecarri au onera Michel?

Deabruac eraman nazala—ez i icusteco go-goac Pachi—baicican eterri nauc iri esatera, choriya aspertu dala caiolan egotes, eta esan cidac ce eguiten ez baditugu bideac ura andican laister ateratzeco, dembora pasa, cantuan asico dala eta aren cantuan otzera bat edo bat joango zaiola lagun eguitera.

Ni an egon naizen artean, ambesteau ere, egon duc baña ni andic atera nintzan ezquerro—ezquerriac capaiñac eguin zuten declaracio ari esanas ni San Miguel arratzean istingagorrico pagariyan egon nintzala capañari burlaca cantuan—guisajo aura, gueroago eta asarreago cioc eta esaten dic; aguindu ciozuten becela andican ateratzen ez badezute dana zan becela, garbi esango duala.

Pachic; ucabillarequin maya joaz eta birau bat botas esan zuan.

—Eta jcergatican bota bear zaisquit neri chalma gustiac izanic danac oquerra eguin guenduanac?

—Poliqui itz eguzu compañero; poliqui.— Nic eguin diat nere escota.—Zuec eman cisquidatzusten, oguei ontzaco ciquiñagatican, an egon nauc, oguei asteau itza lean, eta zuec, urre eta cidarresco gausan gañera, berregun bana ontzaco gorde cendustenoc ez dezute oraindican ancaric sartu iguzqui guchico aposentuan. Besteac escutatu ituan deabruac cequic nora, eta orain, i bacarric aiz beldur izan bearduna.... badaquic, untura oreiquin caiolaco atea iriquitzen ez badioc choriyari igues eguiñ dezan.

—¡Sinistu nazac Michel!—champonican ez ciducat....

¡Beste zacur batí ezurori Pachi! ¡Pachil! ¡Con-

tus ibili aril cergatic Anzuelan asi duc zurru murra bat on aundirican, eguingo ez dirana.

—Eta *¿cer ajola zaidac neri Anzuelarran berriquetangatica?* *¿Ez daquic Pachi, Pepeten ipua?*

—Ez diat nai ere jaquiteric.

—Baña... *¿Nola izan lezaquec ic ez jaquitea, bularreco aurrac daquitenean cerigaro citzaion Pepete donsuari?*

—Michel. Utzi zaiec copla oieri ez ceucatec cer icusirican nerequin eta....

—*Ez dutela cer icusiric irequin? ¡Aitu zac! jaitu zac! eta aurqui esango dirac daucaten edo ez.*

«Pepete uen, Leazpiar bat, eta ic eguiñ dean becela, saldu ciran bere echea, eta bici uen, jan, eran eta josta erregue bat baño egoquiago..... Baña, aterá eta ez sartu aguertu uen cuchatillaren soruba eta joan cituan deabru echera Pepeten jan era nac eta jolasac.—Ondo nai eta ecin izan,—guisajo ura ariuan beti burua necatzen, nola ote ceiquean bici ongui eta lanican eguln gabe.

Arratz batean joan uen Villarrealera sartu uan osteco atetican indiano baten echean eta egun sentiraco jo cican Legazpi ecin jaso ala ontzaco urres zamautua. Asi uan justicia lapurraren billa baña aleguiñ gustiac alferrac izan ituan cergatic ez zuten eceren lorratzic topatu. Bitartean bici uen gure Pepe len da guero baño obequiago. Dembora joan, dembora etorri, inor ez uan oroitzentz Villarrialgo indiano lumatuarequin non egun batén as! ciraden zar eta gaste atzoac eta mutiboac, cantari.

Pepe, pepete
Iñoren gausas
Zuc echea bete,

Eldu uen canta, Vergaraco juezan belarrietara eta bota disco Pepete donsuari, bost mandamendtuac gañean eta ortican cirri eta emetican galde aitortu eraguin cioten zan beclla Villarrealgo indianoarei eman cion chalma eta mesede onen sariya eman cioten danzatu eraguiñas nai ez zuan fandangua soca batcticana cincilica.—Ala ba Pachi, beguira zac ondo, Pepeten ipuiac daucan edo ez, cer icusirican; beguira zac ongui, Anzuelan dabillen zurru-murrua eldu litequean edo ez juezaren belarrietara.

—Yc esan duc ire artean; Anzuelan, ecin nezaque campiatu diru onequin..cergatic bat edo batec galdetuco luque. ¿Nondic ateratzen dirade mesa oie? —eta besten batec eranzungo luque—apaizan echetican—Orregatican esan duc ic, zaldu zadan echea eta jarri zadan denda eta jarri zadan ez ezagun artean inorc nere eltzean sartu ez dezan sudurric eta sinistu dezaten nere ondasunac, salbentaren irabaciak ecarri dituala ¿Ez duc ori ala?

¿Baña, cer esan nai duc ainbeste itz alferrequin Michel?

—Esan nai dirat, mutill abilla izan aizela eta aurrera ala izan nai baduc, eman bear dira quela docenacho bat ontzaco; aiequin igortzias escuac chori zaitzalleari ateratzen ote degun eguzquitarra an calabozoan usteltzen dagoana.

Lenago ere esan dirat Michel; ez dedala nic dirurican. Eta... iduqui eta ere. ¿Uste duc orain arte eman ditudanac ez diradela naicoa?

—Beguira Pachi; eguin zac nai decana. Ni, banijoac ie cer esan decan ari esatera.. icusico duc nola cantatzen duan. ¡Pachil! ere larruba maitatzen baduc atera itzac amabi ontzaco esandacoac.

Pachic aguiñac estutuas españetatican oñola ateratzeraño esan zuan birau izugarri bat eta maico cuchatillatican atera cituan sei ontzaco eguiñac eta bota cituan maian gañean..

Adisquire—sean cion Michelec—sei falta dituc emen.

—Ez ciducat gueyago.

—Amabi bear dituc.

—Pachic bota zuan beste ontzaco bat eta beste birau bat.

¡Pachi! Ez ari dembora pasa ibili..

¡Betos beste bostac ..

Pachic bota zuan beste ontzaco bat.

Animatu ari—guchi falta dituc.

—Ez detala gueiago.

Choria cantuan asico dala.

Pachic bota zuan beste bat.

—Onera beste irurac..

—Iru oñastu erorico aldituc i eta ni bioc quiscajdu gaitecen.

Pachi.. choria amorratzen dagoala cantuan asitzeco.

Pachic bota zuan amargarren ontzacoa eta beste juramentu bat.

Aspertu nauc ia Pachi, atera itzac falta diran biac.

¡Ez diat gueyago emango biciric nagoala larrua quentzen badirade ere...

Pachi.. choriac cantatzen badu,—lepo ori estutuco ditec...

Pachic bota zuan beste bat.

—Ia ba azquena....

—Ez da chiqui chiqui eguiten banaute ere ez diat besteric emango.

¡Ay querden aundia! Ontzaco baten gora bera gatican, nai duc cincilica danzan ibiltzea! ¡Cer icusgarri polita egongo aicen mingaña cana laurdemba campora deala.

Au aditu zuanean Pachic bota zuan azqueneco ontzacoa esanaz—To eta erosi zac beraquin ni urcatzeco soca.

... Cer eguin oiec, borreruanac dituc—esan zuan Michelec—ontzacoa guerricoan sartuaz. Orain eregui zac atea noan Vergarara, artale auec zartzen ote dioscaten ari caiola ertzen bate-tican, eta bigar egun sentiraco laquiola basoan daucaten chendorrean egon nai niquec cergatikan onezquero, esque egongo duc, ura.

Ain cequen ibilli ciñaten nerequin ontzaco partitzean ece berriro ere aizcorari eldu bearizan cioat bicico banaiz.

Pachic guiltza artutzen bazuen becela artu zuan mai gañeann erdi escutatua cegoan araquín cuchillo bat eta eman zuan pauso Michelengana.

¡Pachi!—esan cion onec—pistola bat aterias guerricotican. ¡Pachi! Baldin guiltza ez baduc billatzen atea iriquitzeco, onec iriquico die ire buruan atea edo leioa cuchillo orrec baño obeto.

Pachic lotzaturic esan zuan cerbait ao pean eta utziric cuchilloa eregui zuan atea nundic es mendatu zan Michel.

Bacarric guelditu zanean Pachi joan zan cuchillara eta icusi zuanian Michelec eramandako ontzacoa utzi zuten utzuna asi zan biraucha bu-

ruco illeac aterias eta negarres escola ume bat becela.

Au igaro zanetican, bost edo sei egunera goiz batean cegoan Pachi bere deuda bastarrean aguertu zanean guizon bat carta escuan zuala. Carta au zan Pachirentzat eta Anzuela borratu-ric cedusan aren ordes Oñati. Nola ez cequian iracorten Pachic deitu cion Micaelari, eta onec ezagutu zuanian Ignaciona zala asi zan iracortzen pocez negarra ceriola. Ignacioc esaten zuan carta aretan, jaquiñian cegoala nola gurasoac il ciraden eta laister icusico zutela San Blasco elezan aien gatican Jaungoicoari erregutzen. Esaten cien ere aberastu zala baña osabaren ondasunac bereganatuta ez bada berac irabaci cituanequin euscaldun batec lagunduas. Gure Jaungoicoac —esaten zuan —cupituric nere ez bearraqnin eman dit dembora guchian, beste ascori eren bici gustian ematen dien baño ondasun gueiago, bada neronec irabaci ditudanas gañera, len esan dedan euscaldun laguna, il zan eta nola ez zuan seniderican, nic berari nion legueagaitic utzi ninduan bere ondasun gustiaren jabe.

.. Badaquizute ba; ni nago izugarri aberatza, eta nere ondasunac izango dirade, nereac becela nere anai arrebarenac; baldin, uste dedan becela merecia badute.

¡Ecin ezan lezaque cembateraño zan Pachicon naigabea carta au iracorri zanean.

Bere anaiac cecartzen ondasunac izan balira osabac utzi cituanac berarentzat izan bear zuan naita nai ez irugarren zatia baña al ez izanican ez cedusan escubideric ecertan eta beldur zan jaquiñic Ignacioc beran ibillera eta eguintza

gaistoac, ez ondasunica eman, baicic contu estuac artuco cioscala.

Au oroitzean damutu citzaion eguin cituan gaiztaqueriac; ez biotza bigundu citzaiolaco bai-cican anaiaaren beldurres, eta aurrera asi zan arreba estitzen aleguin gustian.

Egun artatican, orduan arte baño beste bici moduric izan zuan Micaela gaisoac.. Ecarri cion nescame bat echecho lanac eguiteco, jantzi zuan burutican oñetara, cer nai eta arequin estitu zuan itz legunaquin eta itz batean, costea costa eguin cituan aleguiñac Micaela pocic iduquitzeco eta astu eraguiteco aurretic emandaco naigabeac eta egun gorriac....

Arrebac, ez jaquiñic Pachin intencio macurrac, sinistu zuan, Jaungoicoac erruquituric beraquin icutu ciola biotzean borrero ari eta berac uste ez zuala asi zan Pachi maitatzen, asturic artu eraguin cion gorrotua.

IX.

Igande goiz batean Vergaraco plazan eta amarrac inguruau galai gaste batec—esaten cion arrautza, gasta eta egazti; aurrean cituala cegoan estalqui zuri dun amonacho bati..

¿Asco eguiten dute arrautzac?

—Amonac quescas beguiratuas—esan cion—edo nic lañoac ditut beguietan edo beroi da.....

.. Bañ...bai-cera.... Ura ez zan aiñ....

¡Orrela! ¿Ez uan ezagututzen Mariyac?

¡Nere Ama Santisima—esan zuan amonac, eta jareguiñic mantalean ceduzean arrautzari lepotican eldu cion beso biaquin eta lastan emanas esan cion ¡Ignacio?

—Eta amona eta Ignacio guelditu ciran alcar estutuas.

—Mari—esan cion aldamenean cegoan atzo batec ¿Senide aldezu galai ori?

Ez det senide, baña seme batiaña nai diot niconi—erantzun zuan Maric, chichi baño arruago. Neronen belaunetan asia da au esate bateraco. ¡Cer ederra zauden Ignacio! ¡Cembat asi ceran!

¡Ay! ¡Zure ama bici balitz!

¡Cembat nai cizun Fraisca gaisoac!

Ascotan esan oi nion nic—Seme orrec choratu eguingo zaitu zu eta Don Josec esaten ciran—Utziozu—Ignacio du orrec bere cutuna eta...

¡Cer negar garria Ignacioj ¡cer negar garria! Ain famili ederra utzi joan ciñanean eta orain...

¡Batzuec illic! eta besteac...

¡Jaungoicoac daqui non!

¿Cer esaten dezu Mari? ¿Nere anai arrebac.... ez daude Echealaian?

¡Cer! ¿Ez daquizu Pachi deabruac, Simon ustarguiñari echea saldu eta Oñatira joan zala bere arrebarequin?

¡Ay nere Jaungoico maitea... esan zuan Ignacioc buruari elduas.

¡Nere anajac, saldu eginduala echea diozu?

—Aditzen dezun becela. ¡Are, ez badu biotzican! ¡Arc ez badio leguerican iñori! ¡Berac ilzituan nai gabes zure gurasoac!

Ignaciiori bete citzaizcon urez beguiac eta aldatu zuan itz bidea.

—¿Eta Apaiza eta bere echeboa nola daude?

—Ala, ala, ba Ignacio, D. José, oso lurra jota dago, eta Angel oraindican ez da saniatu. Orrengaticac ez da ezcondu zure arrebarequin «cergaitic, berac esaten duan becela» (certaraco ezconduco naiz ni nescacha gaiso orrequin bigaredo etzi alargun utzitzeco edaderic onenean?..... Cein dagoan ambestearen ere; andra Josefa da; eta ori arc ere bereac icusi dituala ambeste joan etorriquin. Legue aundia dio echeari eta esan oi dan becela da, emacume on bat.

Berac ecer izan ezquero ez da ez, ausoan negarric izango. ¡Eta bacenquizu cembat nai dizun!

Beti dabil, Ignacio gora, eta Ignacio bera...

Eta... ¿Nola ibili cera bastar oie tan?..... Ni Mariya American Ongui ibili eta ongui joan zait baña ichasoan gaizqui... Ni, nere ondasun gustiaquin netorren oncia, galdu egun zan bidean eta beraquin galduzan nere iza tea... Etorri naiz joan nintzan becelasse... ¡Ay cer damugarria! Baña... ¡cer eguingo da! biciric zaude eta ori de bearrena. Ez zaite estutu orrengatican; osasunac lagundi ezquero, ez da faltaco ogui puzca bat...

—Ez dago esan bearric... gaur, al carrequin joango guera Anzuelara; astoa nerequin det eta arechec eramango ditu tres narican badezu ¿Ez da ala?

Milla ezquer Mariya, baña len bici Oñatira joan nai nuque aiec an dauden ezquero.

¡Ondo eguiten dezu Ignacio! ondo eguiten de-

zun: cergatican nor beran odolecuari legueric ez dionari Jaungoicoac ere ecin lagundu leioque.

—Eguia da, Pachi dala, arpeguira beguiratutzea mereci ez duana, bana oquerrenera jo eta ere anaia dezu eta len esan dedan becela odolac betic esartzen du. ;Alferrican dal

¡Beti oi da eche bacoitzean cherren bat!..... Micaela bai postuco dala zu icusiarequin. Ez du gaisoac Pachin autz aundirican... Ama ber bera dator uraguztian....

Beste ordu bian ez zan gueldituco Mariyan iturria becero bat etorri ez balitza arrautz trautura... Orain ba... ¿Cer nai dezu Anzuelaraco?...

Escumuñac echian Mari, eta demboras alcar icusico degu...

Egun ura igaro zuan Ignacioc bere cer eguin batzuetan, eta biaramon goisean joan zan Oñatiara.

Micaela eta Pachi biac ceuden deudan Ignacio atean aguertu zanean.

Iruren estarrietatican atera zan pocesco deadar bat eta alcarri elduas guelditu ciraden bat eguinic.

Ecin aditzera eman litezque Pachic eguin cioscan posqueriac Ignaciiori sinistu eraguin naian bere naitasuna eta guchiago aitortu lezaque beordan becela ceiñ gozoa eta aundia zan, Micaelaren eta Ignacioren biotzac betetzen ci-tuan poza...

—Piscabat sosegatu ciradenean Ignacioc aditzera eman cien anai arrebari bere ibilleran ota bere bici moduan joan etorriac eta esan cien Mariyari Vergaran esan ciona, au da, bere ondasun gustiac hichasoac irintziric arditican gabe ceterrela....

Ignacio izquetan ari zan artean Pachic eta Micaelac ceucaten, beso banarequin lepotican ezarrita, baña ez al zuan Pachic aditu joan becin aberatza cotorrela alderandu zan anaireengan dican izurrias edo atzez beteric eterri balitz becela Ignacio... Ez zuan eguin alacorican Micaelac ez bada eldu cion lea baño gogotiago eta estutu zuan bere anai maitea biotzaren contra.... baña Pachic eguin cion beguiracuna bat... aspaldi artan beldurrez eta izardi otsez bete oizuten beguiracuna aietaco bat eta Micaela gaisoac, cer eguiten zuan ez cequiala biotza miñes satituric alde eguin bear izan zuan bere animaco Ignacio gandican.

—Ignacio —esencion Pachic— Nic naicoa eguin diat orain arte i joan intzan ezquiero; gure guraso eta arreba gatican, eta ez diat uste gueiago eguiteco zorian arquitzen naicenic.

..I..pobrea ba aiz, ni ere ala nauc.

.. Jan, naibaduc, lana eguin zac cergatican nic naicoa diat gure arrebarentzat eta neuretzat ogua irabastea.....

Ori duc esatea Pachi, ire echeco atea eta ire biotza ichiac daudela anaiarentzat—esan zuan Ignacioc—dolorcs itzic asmatu eciñic.. ¡Pachi! zuc cere echetican botatzen banazu zacur bat banitza becela nic billatuco dut beste eche bat, nic, nereganatuco dut, nere anai madaricatuac zaldu zuana. eta bertan bicico naiz, nere oñasquin eta nere miserian edo nere ondasun arteaneta au esanas erten zan dendatican eta escuac gurutzatuas esan zuan..

—¡Nere arrebac ere zaldu nau azquenicol! ¡Ay nere Jaungoicoa! ¡Au gueiegui da nere indarra-rentzaco! ¡Eguin bedi zure borondatea!!

Oñaititican corosora dagoan bidea gora cijoan Ignacio guisajoa, burua macurturic eta noicic beñean negar tantoa ceriola, oroituaz bere bacardadearequin. Eldu zanean coroso gañera, utziric bidea igo zuan aren escuico aldetican ce-goañ tontor batera, nondikan aguiri zan San Blas ausera eta non icusten zan Eche-alai; uso zuri bat erramu tartean balego guisa.

¡O nere jaioteche ederra! —esan zuan Ignacioc escu zapiarequin copeta legortuas; —¡Ez dago zure zucalde bastarrean ama bat negarrez, bere seme maitea urrutia dalacol! —Ni garaitzen naicenean zure atari aurreco inchaurretara, ez du iñorc eguingo pocezco garrasirican leio oyetatic...

Ez ama, ez aita. ez arreba eta ez anairican ez da besoac zabalduas anchinchica etorrico erruquigari oni laztan ematera! —Ay nere Jaungoicoa! —Cergatic ito ez ninduzun ichaso in nere lagunac ito cenducen becela? —Cergatic ez dezu sortu nere biotza aimbeste sauritu baño len?

Oñasari eutzi eciñican gira cituan beguiac beste aldera eta..... chilio audi bat eguiñas asi zan tontorra bera; bidea gora, illeac narras eta arnasas eciñ beteric cotorren nescacha gaste bat besoetan estutzera....

Nescacha **au** zan, Micaela, bere animaco arreba cutuna...

¡Ignacio! ¡Ignacio! —Nere Ignacio maitea! esan zuan Micaelac bere anaiaren lepotican cincilica gueldituaz eta aren paparrean arpegquia escutatuas. —Zurequin nai det bici Ignacio nerea! —Zuri jagundu nai dizut zure miserian anai biotzecoa!..

Pachin beldurras ez dizut jarraitu lenago, ba-

ña erruquiturican zure bacarde eta saminarequin indartu naiz aregandican igues eguiteco. ¡Ay Ignacio! ¡Cer arrazoia zuan gure aita, zori one-coac esaten zuanean, Pachic, biotz gogorra zuala!

¡Pachi, aberatza da, eta bota zaitu bere echetican pobrea ceradelaco!

¡Ez nere arreba maitea! ez naiz pobrea, zuc maitatzen banazu—esan zuan Ignacioc—poces eroturic, eroturic amorios.

—Zure naitasuna bacarric falta citzaidan, arreba biotzecoa, cergatic aberatza naiz, izugarrizco ondasunac ditud, orain artean iscutatu nai izan ditudanac jaquiteagatican leiala ote zan nere anai arrebaren naitasuna.

¡An!—esan zuan Ignacioc—beatzarequin Echealai eracutzias bere arrebari... Anche bicico guerade bioc Micaela maitea, eta nic, nere maitetazun bigunarequin, sendatuco ditut zure biotz gaisoac daduzcan sauritu gogorrac... eta escuac emanda alcarri iscutatu ciraden Eloseguietan barrena eta Urquillun ciar, ceruco ainguerauac zales beteric usteco sorryan.

X.



Micaela eta Ignacio, Echealaira. ciradenetican illabetera, goiz batean, Anzuelaco cale goena gora, cijoan amonacho bat bere estameñasco so-

ñeco beltz cderrarequin eta eluira baño zuriago zan estalquian aspitic, copetacho urdiña cincili-zuala.

Pertzan ipurdia baño beltzago zan atzo batec, ate cirristu batetican, atera zuan burua bata bes-tearen gañean bi edo iru estalqui zarrequin jan-tzia.

¡Manu!—deitu cion amonachoari..... ia, onera-ño.

—Presaca nua Pepa eta ez det astirican orain eranzun cion Manuc anrrera joanas.

—Emacumea, ez zaitugu jango—esan zuan Pe-pac eta atetican erten da joan citzaion, arri mutu-rretican arri muturrera pauso eguiñas, catuac locatza tarteau eguin oi duten guisa.....

—Gaur; ez dago cer esanican—¿An izango cera?—esan zuan atzo beltzac—Manu aurrean jarri eta escu batequin, estalqui zarrac aurreratu becoquian eta beste escuco biatzarequin zudur zuluac erregistatuas....

—Bai.. ¿eta cer?—esan cion Manuc.

.. Cer... Badaquizu zuc, eta beste ascoc ere bai gure miseri...

—Bai, bai,—badaquit certara zuacen... impos-sible ez bada, zubatiatu ciñusten pondac izango zuan jarion bat.. zuri.. ez, lan zurdea, baicican Pepa negar, jarri bear cizuten icena.

.. Bai.. iñoren beguico negarrac, ez dit neri ere miñican ematen Manu.

.. Nic sinistu ori, Pepa—baña ezan zazu lais-ter, esan bear dezuna.

—Ba.. esaten ari nitzan becela, neu ez naiz ecertaraco gausa, ala ere egualdi otz abequin.....

Egualdi otzac baño gaitz gueiago eguiten dizu barrua gueiegui epelduac Pepa..

.. Bai.. gure inchaurrac erac diraden baño soñu anndigoac izaten dituzte Manu... gure agure cascalari ere, besoac sortu zaisco dornuari eta cardari eraguiteco baña aguiñac gueroago eta azcarrago ditu. ¡Aren, ogui chiquitzea!

¡Aren, irinchi bear tristea... berarentzat lain...

¡Issilic egon zaite! ¡Asco ezagun dute zure señar guisajoan masalla ertzac, ase eta betean dabillela zuc esan naya dezun becela.... baña sabiltz ascar presa dut eta....

Gaur, ba.... iñoiiz izatecoan izango dira an escupecoac; eta zuc D. José edo andra Josepari esango ba ciñio itz erdicho bat, cergatic, badiquiza gu becelacoac... eta gañera cerri ezur batzuec edo beste edocer gausa echeac dacarrena ez litzaque....

—Eta ¿Cergatican joaten ez cera ceori?

—Ay Manu! Neretzat arpegui illunac egoten dirade an....

—Merecia izango dezuləco....

—Cereco mereci—Inoren echecho gauzac jaquiteagatican, noicic beñean eramatene dute bera betecada bat ematera, eta deabru arc guezur eta abar... beti ni char eguin.

—Bai, choroac dituzu bai Apaiza eta bai bere echechoac ez igartzeko ceiñ ceraden zu eta nor danz ure agura guisajoa.... bai, naicoa esan dezu, eta banoa esanas, igues eguin cion Manuc....

Guero, ez astu, nic esandacoa—deitu cion lan-zurdeac....

Bai, egon zai,—eranzun cion Manuc—dembo-

ras izango naiz emen escupecoa colcoan eta upe-la chiqui bat patarres betea buruan detala..

Pausoa arin, arin emanas bacijoa gure Manucho, non, tellari buruan trinc egun zuan Mariyarequin, ceñ cotorren galtzada ciar bere pranelasco mataliña tolostuaz escu biaquin artuas ertz banatatican eta ocotzarequin erditic eutzias eta nola—Jaungoicoari ezquerrac—ez zan mutua daquigun becela—esan cion Manuri.... Limboan edo, ¡Non egon cerade orain artean Manu! ¡Ez aldezu?.... Isilican zaude Mari.. ernegatua nago nere artean ere... Lau zurde sorguiñac iduqui nau nai ta nai ez ordubetean bere betico negarrac esaten.

¡Ay Manu! ¡Orainche, betico, alcartytu ditu Don Josec! ¡Ay ura ieuzgarria!.. Micaelac, Ama virgiña bat cidurian eta Angelec ainguera San Gabriel icusi baciñu.

—Eta ¿Nortzuec izan dituste lagun?

—Nortzuec izango citusten Manu..

—Andra Josepa eta Ignacio edo Don Ignacio; cergicic, uste dut Don esan litzaquiola. emen ingurueta aberatzenari; berac nai ez baldin badu ere... ¡Gaisto aundia! ¡Cer patata sinistu eraguin cidan Vergaraco plazan!

—Mariya, Jaungoicoac bedeincatu ditzala; cergicic; mereci dute.

—Ala izan dedilla Manu.. Apaiz jauna ere.. illabete onetan gaztetu da oso—artu ditu berriz ere lengo colore eder aiec...

Mariya, zu echeboa nola ceraden an ¡jaquingo dezu cerbait?

¡Jaqin ez badal! ¡Bai orise! Ba.. Ignacio etorri zanean lembici egun zuan gausa izan zan,

Don Josen echera joan, eta esatea; ¡Don José!

Ni, dirus josiya nago, baña falta zaisquit, aita, ama eta anaia, Angel, escondu dedilla Micaelarequin, eta beori D. José, izango da nere aita; beori, Andra Josepa, nere ama eta zu Angel izango cerade nere anaia.

Umian ondasunac, dirade gurasoenac eta orregatican, jaquinian egon bites, nere ondasunac, danorenac diradela. Udaberria eta uda igaroco ditugu Echealaian eta negua emen.

Ez alzuau au esan Ignacioc danac alcarri elduas asi ciraden..., baña.... isso.... an non datocen.... goacen icustera Manu esanas, joan ciraden biac escolako umeac becela, berriquetan eguiñas eta corrica eleiza aldera.

Guizon bi, San Ignacio marcha joaz, bata chirolaquiñ eta bestea atabalarequin; aien ondoren, pago gasteac baño bortitzago ciraden mutil tropel baten artean, Angel; eta aben atzetican, Micaela; larrosas eta crabelinas eguindaco chorta bat baño ederragoago zan nescacha mordo baten erdian, eta gustien jarrai, Don José; Simonen eta Ignacioren erdian, cijoacen eleizatican, apaizaren echera.

¡Ay Manu!—esan zuan Mariyac—¡Cer damugarria gaur, ez eman bearra gure Jaungoicoac ordubeteko bicia Juane eta Fraisca, sorionecoeri, au icusi dezaten.

¡Bai! ¡Arazoia daucazu Mari! baña cerutican egongo dirade beguira eta... baña ¡Cergatican ote doaz aimbeste lagun corrica bide

aldera? ¿Cer icusgarri ote dago au? Goacen gueu ere cer ote dan.. eta esan da eguin, amonacho biac, joan ciraden anchinchica...

An cegoan icusquizuna zan, mutil sasoico bat, burnisco cepo batean escuac sarturic eta soca batequin ucolondoac gogor loturic, lau chendarmen artean ceramatena descarga aldera.

¡Nere ama Piedadecoa! ¿Cer icusten dut nic?—esan zuan Mariyac esnea baño zuriago eguin da.

¡¡Pachi da loturic damaten ori!! ¡¡Ay gure Jaungoicoa!! ¡bera da—bera da!—eranzun cion Manuc beguiac estalias.

¡Ay Manu! ¡Cembat arrazoi zuan Fraisca, gaisoac, esaten zuanian Pachic carcelaren bat en usteldu bear zuala!!!

.. Pachic icusi zuan Simon ustarguiña, Don Josen echecho leio batean eta guelditu nai izan zuan arequin itz bat edo bi eguiteco, baña cendarme batec.. aurrera; esanas, jo zuan bizcarrean fusiliaren ipurdias eta escutatu ciraden bidea gora.

¡¡¡Choriac cantatu eguin zuan!!!









